

2025/26 IKASTURTEA

JANGELA, GARRAIOA eta HAURTZAINDEGI ZERBITZUA

2025-05-30

HH 2 URTE

2025/26 ikasturtean zerbitzuak modu egokian antolatu ahal izateko, ezinbestekoa zaigu gure ikasleek egingo duten erabileraren aurreikuspena izatea.

Datorren ikasturtea irailaren 8an hasiko da. 2 urteko haurrak lehen bi asteetan egokitzapen prozesuan egongo dira (irailak 8-irailak 19, biak barne).

Irailaren 23tik aurrera ohiko egutegiarekin hasiko dira eta zerbitzu guztiak martxan jarriko dira.

Guzti hau kontuan hartuz, ordutegi ezberdinak eskaintzen ditu ikastolak:

ORDUTEGIAK

Aukeran:

- 1) Zaintza, 07:30etatik aurrera.
- 2) 09:00 – 12:30: goizeko jarduna.
- 3) 09:00 – 13:30: goizeko jarduna + jangela. Haurra bazkaldu ondoren jaso dezakezue, 13:30tan.
- 4) 09:00 – 16:45: goiz eta arratsaldeko jarduna + jangela. Bazkaldu ondoren siesta egingo dute, haurra 15:30etatik aurrera jaso dezakezue.
- 5) 09:00 – 12:30 / 14:45 – 16:45: goiz eta arratsaldeko jarduna, jangela gabe.

Oharra: 2 urteko haurrek lege ezin dute 8 ordu baino gehiago ikastolan pasa.

Ikastolak eskaintzen dituen zerbitzuak hauek dira:

HAURTZAINDEGI ZERBITZUA

Villa Soroako egoitzan eskainiko da goizeko 7:30etik 9:00etara, irailaren 22tik aurrera.

JANGELA ZERBITZUA

- Zerbitzua irailaren 22tik aurrera hasiko da.
- Haurra bazkaldu ondoren jaso dezakezue, 13:30etan.

GARRAIO ZERBITZUA

- Zerbitzua irailaren 22tik aurrera hasiko da. Eguneroko bidaia kopurua ere aukerakoa izango da.
- Aukeratzen den ordutegia EZINGO da trukatu.

2025/26 IKASTURTEA

JANGELA, GARRAIOA eta HAURTZAINDEGI ZERBITZUA

Oharrak

- ✓ **2 urteko haurren kasuan EZIN dira zerbitzuak** (goizeko zaintza, jangela, autobusa) **txartel bidez edo tarteka erabili**. Zerbitzua erabiltzen duen haurrak **egunero** erabiliko du.
- ✓ 2 urteko haurrek legez **ezin dute 8 ordu baino gehiago** ikastolan pasa.
- ✓ Zerbitzuren batean **baja** eman nahi izanez gero, **aurreko hilabetea amaitu aurretik** egin beharko da. Ez da hilabete bakarreko bazarik onartuko, ez eta bajak eta altak ematen aritzea ere. **Ekainean ez da bazarik onartuko**.
- ✓ EZ DA PLAZARIK GORDEKO

PREZIOAK

		Irailak 22-30 Kuota bakarra	Gainontzeko kuotak urritik ekainera 9 kuota
JANGELA	Egunero	38,45 €	104,50 € hilean
GARRAIOA	BIDAIA BAKARRA:	15,80 €	43,00 € hilean
	BI BIDAIA:	24,90 €	67,60 € hilean
GOIZEKO ZAINZA	Egunero	15,80 €	43,00 € hilean

Prezio hauek 2024/25 ikasturtekoak dira eta ez dira behin betikoak. Zerbitzuen erabileraren eta prezioen eboluzioaren arabera alda daitezke, nahiz eta gure helburua bere horretan mantentzea den.

- Galdetegia osatzeko azken eguna **ekainaren 16a** izango da, ikasle guztiek bete beharrekoa, zerbitzuetan izena eman nahi ala ez.



ZERBITZUETAN IZENA-EMATEA

ZUZENDARITZA

